

Herritar, ikasleen guraso preziatuak:

**ONGARAI ESKOLAKO BIDEAREN** lantaldetik proiektuaren hasieratik hona eman diren aurrerapausoen berri ematera gatozkizue.

Eskola-umeek ikastetxeko joan-etorrietarako erabiltzen dituzten moduen estatistika txiki bat egin dugu eta ia %80 oinez egiten dituztela ondorioztatu da.

Gainera, haurrek etxetik eskolara bidean egunero topatzen dituzten arazo nagusien diagnostikoa egin dugu eta arazorik handienak ondorengoak direla ikusi dugu:

**Oinezkoen pasabideetan autoak harrapatzeko arriskua**, ibilgailuak behar ez bezala aparkatuta daudenez gero, ikuspenik ez eta pasatzeko lekurik ere ez dagoelako.

**Galtzatik joateagatik autoak harrapatzeko arriskua**, ibilgailuak behar ez bezala aparkatuta daudenez gero, espaloietatik joatea ia ezinezkoa delako.

**Espaloietan leku falta** Ongaraiako eskoletara joaten den ikasle eta guraso kopuru handiarengatik. Ermuan eskolaratuta dauden umeen %80 Ongarai auzoan dauden ikastetxeetako batera joaten dira.

Arrisku-egoerak egunero-egunerokoak dira, horregatik behar da guztion laguntza, egunen baten gauza txarren bat gerta ez dadin. Gure gazteen bide-segurtasuna bermatu nahi dugu baina horretarako lagundu egin behar diguzu

1.- "gure oinezkorik txikienak" errespetatuz, espaloi eta zebra-bideetan zure ibilgailuarekin inoiz sartu barik.

2.- Umeak egunero autoz eramatea benetan **beharrezkoa** ote den pentsatuz eta, hala bada, ikastetxearen ate aurrean bertan uztea nahitaezkoa ote den.

Gogoratu ezazu garraio kolektiboek lehentasuna dutela eta are gehiago eskola-umeenak, eta berriazko lekuak gaitzen direla eskola-umeen kargatze-deskargatze lanetarako, horiek ere lehentasunezkoak izanik.

Guztion arteko bizikidetzaz eta errespetu-arau hauek bete ezean, derrigorrez betearaziko da legea, kasu guztietan babesten baititu eskola-umeak.



INGURUMEN SAILA  
ERMUKO UDALA

ONGARAI AUZOKO IKASTETXEETAKO  
ZUZENDARITZA ETA GURASO ELKARTEAK